



# Klis-Klas klasikoak! bilduma

Bizitza, testuingurua eta obrak

**EUSKAL AUTORE ZAHARRAK:**  
**BIZITZA, TESTUINGURUA ETA OBRAK**

**XVI. Mendea**

Bernard Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), Sautrela

Joan Perez de Lazarraga "Lazarraga", *Eskuizkribua* (1567), Aitak ezkontzen ez banau

**XVII. Mendea**

Pedro Agerre "Axular", *Gero* (1643), Gomendiozko karta

**XVIII. Mendea**

*Joanes Etxeberri "Etxeberri Sarakoa", Lau-urdiri gomendiozko karta, edo guthuna*  
(1718)

Juan Antonio Mogel, *Peru Abarka* (1802), Diálogo cuarto

**XIX. Mendea**

Bizenta Mogel, *Ipuin Onak* (1804), Lehoia eta saga

Agustin Paskual Iturriaga, *Ipuinak* (1842), Adiskide bi eta hartza

## BERNART ETXEPARE: “*Linguae Vasconum Primitiae*” (1545)

Bernart Etxepare 1480. urte inguruan jaio omen zen, Duzunaritze-Sarasketa izeneko herrian, Garaziko herrialdean (Nafarroa Behera). Bere bizitzako oso datu gutxi daude, baina jakin badakigu 1518. urtean Eiheralarreko elizako apaiza izan zela, eta geroxeago Donibane Garaziko bikarioa. Bere garaian, badirudi Nafarroako Erresuman personaia ospetsua izan zela. Ez dakigu argi Etxepare noiz hil zen, baina badakigu 1545. urtea baino geroago izan zela.

Nafarroako Erresuman 1512. urtetik aurrera izan ziren gudak eta istiluak, gertutik bizi izan zituen Etxeparek. Badira agiriak frogatzen dutenak, 1516. urtean, Henrike II.a Nafarroakoak, Fernando II.a Aragoikoa erregearen kontra eginez, Donibane setiatu zuenean Etxepare bertan zegoela. Olerki batean azaltzen duen bezala, preso egon zen Nafarroako erregearen menpe, badirudi Gaztelako erregearen alde egin zuelako. Atxilatzearen arrazoiak ez dira garbiak; batzuk diote, arrazoi politikoengatik izan zirela, beste batzuk, ordea, arrazoi moralengatik izan zirela. Halere, Etxeparek bere errugabetasuna lau haizeetara aldarrikatu zuen.



1. irudia. *Linguae Vasconum primitiae* liburuaren portada.

Etxeparek euskaraz inprimatzen zen lehenbiziko izkribuaren idazlea izan zen, *Linguae Vasconum Primitiae* liburuarena, alegia. Bordelen plazaratu zuen 1545. urtean eta latinezko izenburuak "Euskararen hastapenak" esan nahi du. Liburua hamalau poemek osatzen dute; lehenengo poema gai erlijioso nagusi da, hurrengo hamaika olerkiak amodioari buruzkoak dira eta hamairugarrenean Bearnoko kartzelako egonaldia kontatzen du, beraz, poema autobiografikoa dugu hau. Azkenengo bietan, euskararen goraiipamena egiten du.

Etxeparek liburu osoan zehar, lehen euskal idazlea izatearen kontzientzia nabarmendu zuen, bere harrotasuna agerikoa da, oso.

### Sautrela

Euskara da kanpora eta goazen denok dantzara.

O Euskara lauda ezak Garaziko herria,  
zeren handik hartu baituk behar huen grazia.  
Lehenago hi baihintzen hizkuntzarik azkena,  
orain aldiz izango haiz guztietako lehena.

Euskaldunak mundu guztian preziatu ziraden,  
baina haien mintzaeraz beste guztiak burlatzen.  
Zeren inongo liburuetan eskribitzen ez baitzen;  
orain dute ikasiko nola gauza ona zen.

Euskalduna den gizon guztiak altza beza burua,  
ezen haien hizkuntza izango da loria  
Printze eta jaun handiek hura eskatzen dute,  
eskribituz ahal balute ikasteko desira.

Gogo hori konplitu du Garaziko naturak  
eta haren adiskide orain Bordelen dagoenak.  
Lehen inprimatzailea euskararen hura da;  
euskaldun guztiak obligatu beti berarengana.


Eta lelori bailelo leloa zarai leloa

Euskara da kanpora eta goazen denok dantzara.

## JOAN PEREZ DE LAZARRAGA “LAZARRAGA”: “Eskuizkribua” (1567)

Juan Perez de Lazarraga 1547. urtearen bukaeran edo 1548. urtearen amaieran jaio omen zen, Erdoñan (Araba). Eta 1605. urtean hil zen. Arabako Larreako dorreko jauna izan zen, eta *poeta* izengoitiaz ezaguna izan da, arabar noblezia txikiko familia ezagunekoa izan baitzen.

Lazarragak kargu publiko batzuk izan zituen bere menpe; Erdoñako elizako maiordomoa, Barrundiako Ermandadeko alkatea eta Barrundiako prokuradorea Arabako Batzar Nagusietan izan zen. 1575. urtean Katalina Gonzalez Langarikarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten.



2.irudia.Lazarragaren Eskuizkribuaren orrialdea.

Lazarragaren ezagutzen diren idazlanak bi dira: gaztelaniaz idatzitako Lazarragatarren leinuaren kronika genealogiko bat eta literatura lanen bilduma bat, euskaraz (gehienak) zein erdaraz idatzita. Bada beste hirugarren lan bat: Lazarragarren *eskuizkribuak*. Lanaren aurkikuntzak garrantzia handia eman dio azken urteotan, 2004. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak jendaurrean aurkeztu baitzuen. Eskuizkribuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako hainbat literatura-testuz osatuta dago. Data ez da ziurra, baina badirudi 1567.urtetik 1602. urtera bitartean idatzitako lanak osatzen dutela eskuizkribua eta obran zehar bi atal bereizten dira nagusiki; batetik, artzain liburu bat eta bestetik, poema eta kantu ezberdinen bilduma bat.

### **Aitak ezkontzen ez banau**

Jaio nintzenetik zerbitu dut:  
ezkon nazala dagoeneko.  
Ezkontzeko adina dut,  
hogei urteetara heldu ezkerro;  
zorigaiztoan jaio nintzen  
ezkondu gabe hiltzen banaiz.  
Aitak ezkontzen ez banau,  
ni ezkonduko naiz laster.

Gau-egunetan beti nago  
etxekekin arren ezkondu nagiola.  
Senarguraz nagoen bezain laster,  
etxeke gizagaixo horiek beti barrez:  
- Oraindik gaztea zara eta,  
urtetxo baten goza ezazu.-  
Aitak ezkontzen ez banau,  
ni ezkonduko naiz laster.

Oi nolako berotasuna  
darabiltzan hanketan!  
Jakingo nuke etxean  
gona eta atorra  
salduko nuke lepokoa  
berarekin ezer egin ahalko banu.  
Aitak ezkontzen ez banau,  
ni ezkonduko naiz laster.

Hain egin zait azkura handia  
nire zilbor honen aldamenean  
jarri banintz sutondoan,  
berotzen zait iturria  
egingo zait min horia  
erremediorik aurkitzen ez badut.  
Aitak ezkontzen ez banau,  
ni ezkonduko naiz laster.

Edonon asko dago  
nirezako dolorerik;  
ez da munduan morrorik  
nork esan dezakedan "nola zaude?".  
Otoitzean beti nago:  
otsoak aita jan balu!  
Aitak ezkontzen ez banau,  
ni ezkonduko naiz laster.

## PEDRO AGERRE "AXULAR": "GERO" (1643)



3. irudia. Pedro Agerre  
"Axular".

Pedro Agerre Azpilkueta "Axular" (1556-1644) Urdazubin jaio zen. Salamancan Teologia ikasketak egin zituen eta 1596. urtean ordenatu bezain laster, Donibane Lohitzunera bizitzera joan zen eta bertan, lau urtez egon zen predikari gisa. 1600.urtean Baionako apezpikuak Axular Sarako erretore izendatu zuen. Horrek istiluak sortu zituen eta apaizak ahalegin handiak egin zituen Axular kargutik kentzeko. Berak, ordea, Enrike IV.arengana jo eta erregeak dokumentua eman zion.

Axularrek obra bakar bat idatzi zuen, euskal literaturako lan nagusietakoa izan dena: *Gero, bi partetan, partitua eta berezia*. 1643.urtean argitaratu zen, hil baino urtebete lehenago. Lehen prosazko liburu honek ospe handia izan du, horregatik argitalpenak ugariak izan dira. Liburuan zehar Axularrek irakurlearen ekintzetan eta ondorioz, moralean eragin nahi du, hori dela obran zehar gomendioak ugariak dira.

Euskal autore zaharren artean, Axular idazle trebea eta goi-mailako elizgizona dugu. Eta Sara eskolako egilerik nabarmenena izan da, korronte bat sortu baitzuen. Axular Saran egon zen hil arte, 1644.urterarte, alegia.

## GOMENDIOZKO KARTA

1 Nire jaun BERTRAND DE ECHAUS, Tursko Artzapezpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari: Ordenako aitonen seme, eta erregeren Konseillari famatuari.

### ZERUKO LORIA

Nire jaun maitea, joan zatzaizkit lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ez didazu iguriki. Ordea nireak dira faltak, nirea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabilanari gertatzen ohi zaiona egin zait niri ere. Baina guztiarekin ere, nire obligazio handiek, ondasun errezibituek, eta beti ere, nire alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ez didate uzten, ondotik bedere, zutaz oroitzapen egin gabe, liburutxo honen, kanpora ateratzeko, ausartziaren hartzera.

Zeren iruditzen zait ezen oraino bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzaitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu.

2 Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emezurtza, anitz lekutan da bere aitaren amoreagatik, ongi etorria, eta erraiki errezibitua. Liburutxo hau da emezurtza. [...]. Aita hilez gero sortua. Baina zu bezalako aitaren semea, emezurtz izateagatik ere, ezin daiteke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitu.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aintzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer esango du?

Nor da Euskal Herrian alde edo moldez, zordun eta obligatu ez zaizunik? Behartu eta enplegatu ez zaizunik? Eta baliatu ez zaizunik? Zure etxea, egon eta ibili zaren leku guztietan, beti ere izan da, euskaldunen etxea, pausalekua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrangurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Zuhurki konseila, gida, goberna eta burutan atera.

Zu izan zara, eta izango zara, euskaldunen ohorea, jabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.



## **JOANES ETXEBERRI "ETXEBERRI SARAkoa": Lau-Urduri gomendiozko karta, edo guthuna" (1718)**

Etxeberri Sarakoa 1668. urte inguruan jaio izan zen, Saran (Lapurdi). Medikuntza ikasketak egin zituen eta hauek amaituta, bere sorlekuan -Saran, alegia- sendagile gisa hasi zen lanean. Ondoren, Hegoaldera joan eta hainbat herritan (Beran, Hondarribian eta Azkoitian) mediku lanak egiten egon zen. Gaixoak zainduz, Kardaberaz eta Larramendi euskaltzaleak ezagutu zituen.

Medikuntzan aritu bazen ere, idazteari ere ekin zion. Une hartan idatzi zituen lan gehienek ez zuten argia ikusi, eta ondorioz, batzuk galdu egin ziren. Izan ere, Etxeberriren lan bat soilik 1718. urtean argitaratu zen: *Lau-Urduri gomendiozko karta, edo guthuna*. Obra horri esker ezagutu izan ditugu Etxeberriren asmoak, Lapurdiko Biltzarrari bidalitako eskutitza baita. Gutunean bere lanaren berri ematen du eta euskara Lapurdiko eskoletan irakasteko eskakizuna egiten du, diru-laguntza eskatuz. Erantzuna ezezkoa izan zen, horrela, 1718. urtean bere kontu argitaratzea erabaki zuen.

Etxeberri euskaraz idatzi zituen lanak, beraz, hiru izan ziren. Lehenengo lana, *Escuararen hatsapenak* (1712) izan zen. Eskuizkribua Julio Urkixok Zarauzko komentuan topatu zuen. Bigarrena, Euscal-herriari eta *Euscaldun guztiei escuarazko hatsapenac latin icasteko* izan zen. Garai hartan, kultur hizkuntza latina zen oraindik, hori dela eta, euskaldunak, gaztelaniazko edo frantsesezko ikasbideak ikasi behar izaten zuten latinaz jabetzeko. Eta azkenengo lana, lehen aipatutako, *Lau-urdira gomendizko carta, edo guthuna* (1718) izan zen.

Etxeberri Sarakoa euskaltzale handia izan zen; XVIII. mendean euskararen baliogarritasuna agerian utzi nahi izan zuen lehenengo autore laikoa dugu. 1789. urtean hil zen, 81 urte zituela.

Jainkoak gizonari eman zion gauzarik abantailatuena eta premiazkoena izan zen mintzoa: zeren solasaren eta mintzoaren bidez adierazten baititu bere gogoan estalirik eta gorderik dauzkan gauzak [...]. Eman zigun mintzoa elkarren gogoetako berriak elkarri ezagutzera eta aditzera emateko.

Hau da dohain berezi bat, gure Jainko jaunak gizonari soilik eman diona: Ezen abre mutuek ere, izan arren guk bezala mihia, hortzak eta ezpainak, guztiarekin ere, falta zaie, mintzoa. Abretarik edo animalietarik batek ere ez du mintzorik baizik gizonak [...]. Munduko gauza guztien artean, ez da deus ere Gizona baino abantailatuagorik, zeren beste animaliek hortzak eta mihia izan arren, ez baitituzte gosearen eta egarriaren asetzeko, janariaren eta edariaren sabelera sartzeko, garraiatzeko, jateko eta edateko baizik. Baina gizonak eginbide horiez kanpoan ditu, bere bihotzean dituen gauzen hitzez aditzera emateko. Zeren hitza eta mintzoa egiten baitira barrenetik ateratzen dugun aireaz, mihiaz eta ezpainez. [...]

Ezen mintzorik eta hizkuntzarik izan ez balitz gure artean, nola biziko ginen mundu honetan? Munduak nola iraungo zuen? Bakoitzak nola emango zuen aditzera bere arrazoia eta zuzena? Bere ondokoa nola besteri esango eta kontatuko zion? Mintzorik eta hizkuntzarik izan ez balitz, nork zer irakatsiko zuen? Legeak nork eta nola egingo zituen? Mundua nork gobernatuko zuen? [...]

Mundu hau bada bere oinean badago, mantentzen bada, legeak egiten badira, nori bere zuzena begiratzen bazaio, jakintasuna eta eskolak irakasten eta ikasten badira, hirietan eta herrietan jendeak elkarrekin bizi badira, eta guztien gainetik baldin salbatzen bagara; ondasun eta fabore hauek guztiak heldu zaizkigu mintzotik eta hitz egitetik.

Hemendik ikusten duzu beraz, zein dohakabetasun handia litzateke Munduarentzat, baldin gure artean hizkuntzarik ez balitz; bai halaber zenbat fabore, eta laguntza on dakartzan mintzoak berekin? Horregatik esaten ohi zuen Demetrio Phalereo jakintsunak eta zuhurak: Gerran armek egiten dutena bakean mintzoak eta solas onak egiten duela. Zeren gerran gauza guztiak irabazten baitira indarka, bortxaz eta garaitiaz: baina bakean hitz onez eta arrazoi gozoez ongi egiten dira egitekoak. Hala esan zuen Pirro Epiro Albaniako Erregeak ere. Bere arma guztiez baino hiri gehiago garaitu, irabazi eta ardietsi zituela hitz onez eta arrazoi gozoez.

## JUAN ANTONIO MOGEL: "Peru Abarka" (1802)



4. irudia. Juan Antonio Mogel.

Juan Antonio Mogel 1745. urtean jaio zen, Eibarren (Gipuzkoa). Bere aita ogibidez osagilea zen, eta Juan Antoniok lau urte zituela, Debara bizitzera joan ziren eta beste lau urte geroxeago, Markinara itzuli ziren.


Teologiako ikasketak egin ondoren, apaiztu zen eta 1770. urtetik aurrera, Markinan bizi izan zen. 1788. urtetik aurrera, Markinako parrokoa izan zen eta gaixo batzuei laguntzen ari zela, 1804. urtean kutsatuta hil zen.

1789. urteko Iraultza Frantsesak eta 1793-1794 urte bitarteko Konbentzioko Gudak, hain zuzen ere, gogor markatu zuten Mogel, eta ondorioz, honen jokabidea eta idazgintza baldintzatu. Erljioaren aldeko defentsa izango da bere kezka nagusia mendea bukatu arte.

Bere lan gehienak 1800-1804 urteetan idatzi zituen. Euskarazko liburuak argitaratu zituen, Añibarrok bezala, Bizkaian aitzindari izan zirela. Baina euskal liburuak argitaratzeko oztopoak ugariak ziren. Borbondarren eragozpenak nagusi izan ziren, hauek ez baitziren euskaltzaleak. Mariano Luis de Urkijo bilbotar ministrariari esker, bere lehen obra argitaratzea lortu zuen, hurrengoei ere bidea erraztuz.

Mogelek idatzitako beste lan batzuk, euskararen balioa erakusteko idatzi zituen, hauen artean, *Peru Abarka* (1802) lan ospetsua dugu. Obra honek euskarazko lehen eleberrizat hartua izan da. Peru eta Maisu Juanen arteko elkarrizketak osatzen dute. Peru baserritarra da, eta kristau eta euskaldun onaren ezaugarriak hartzen ditu bere gain. Maisu Juan, aldiz, euskaraz trakets hitz egiten duen kristau eta euskaldun txar baina bide onetik doan pertsonaia da.

Mogel badugu ere, lehen euskal alegilaria. *Alegiak* izeneko alegia sorta bat idatzi baitzuen, gipuzkeraz eta bizkaieraz. Dena den, gazteleraz ere idatzi zituen lan batzuk, jakintsuei euskararen antzintasuna erakusteko.



5. irudia. *Peru Abarka* liburuaren portada.

Ondorio gisa esan daiteke, J.A. Mogel euskal literaturako idazle ospetsua izan zela. Euskal ilustrazioaren emaitza izan zen, Paulo P. Astarloarekin batera. Larramendi, Mendiburu eta Kardabera jarraituz, erlijio gaien inguruan idatzi zuen, hizkuntza landu batean. Baina erlijio gaiez gain, literatur mailako obrak ere idatzi zituen, berak sortuak nahiz itzuliak.

**Diálogo cuarto**

**PERU:** Egun on, Maisu Juan. Ondo lo egin duzu?

**MAISU JUAN:** Nor da hor?

**PERU:** Ni, jaikitzeke ordua da.

**MAISU JUAN:** Ze ordu da bada?

**PERU:** Laster zortzirak.

**MAISU JUAN:** Ez nire gorputzeko erlojuan. Lo gozo gozoan nengoen, eta lo batek iraun du etzan nintzenetik hona. Oraintxe bertan ezin ireki ditut nire begiak. Zelan irten ohe honetatik?

**PERU:** Zer dauka ohe horrek?

**MAISU JUAN:** Ez dauka erregerik ez bigunagorik, ez hobeagorik. Sartu nintzanean egin nuen luma artean toki eder bat; ez dut jira bat egin gau guztian.

**PERU:** Hamar orduko loa egin duzu beraz, bada etzan zinenetik bart hamarretarantz.

**MAISU JUAN:** Nola dakizu hemen zer ordu den erlojurik ez badago, entzuten ere ez bada elizakoa?

**PERU:** Baserritan daukagu igargarri asko egunez eta gauez, eta zuzenago gabilta gu orduetan, herri barrukoak baino.

**MAISU JUAN:** Beraz jaiki behar dut. O ze nagi naizen! Bertako zimitza guztiak ere ez ninduken iratzartuko. O ze beste gaua, atzokoa eta gaurkoa! Ze eguraldi modu dago?

**PERU:** Egun ederra; ez dago hodeirik, bai eguzki ederra; lei apur bat jauzi da, baina ez esatekorik, ez kalte egin ahal duenik?

**MAISU JUAN:** Noiz jaiki zinen bada zu?

**PERU:** Egunsenti, edo egun usainarekin batera; eta berandu nintzen beste egunetakoan aldian. Nork egon behar du eguzkiaren menpean legez ohetik irtetzeko? Oiloak karkaraka hasteaz batera, jaikitzen naiz berandu ere dela. Oilarraren azkenengo soinuarekin inguratzen dira nire mutilak, eta jaikitzen dira gau erdiruntz gure behi, idi edo txahalei begiratzera, gero ohera bueltatuko badira ere. Ez dakigu hemen alferkeria zer den; ez eguna gau egiten, herrietan askok legez. Ez zenuen bart entzun nire konfiantza, edo nik iratzartuko zintudalako uste zenuen? Ez genuen hala itundu?

**MAISU JUAN:** Bai Peru; baina badakizu ez dela berdin gaueko zirriparra, eta goizekoa.

**PERU:** Daukagu gaur zer ibili, eta zer ikusi asko, eta halan ingira zaitetz.

**MAISU JUAN:** Ekar itzazu bada nire arropak, eta barkatu gogobetetzea. Besoa ateratzeko ere nagi naiz

## BIZENTA MOGEL: “Ipui Onak” (1804)



6. irudia. Bizenta Mogel.

Bizenta Antonia Mogel 1782. urtean jaio zen, Azkoitian (Gipuzkoa). Urte bete egin baino lehen, aita hil zitzaion eta bere nebarekin batera (Juan Jose Mogel) Markinara bizitzera joan ziren. Bertan, neba-arreba biak bere haurtzaroa igaro zuten, Juan Antonio Mogel osaba idazlearekin batera. Ikasketak osabarekin egin zituen, latina irakatsiz, honek idaztera animatuz.

Bizenta euskaraz idatzi zuen lehen emakumetzat hartua izan da. Garai hartan, emakumeak ez ziren eskolara joaten, kaltegarria zelako ustea baitzegoen. Badirudi irakurtzen ikastearekin nahikoa zela, idazten ikastea kaltegarritzat jotzen baitzen. Bizentak berak ere *Ipui Onak* liburuaren sarreran horren berri ematen du.

Bere lehen liburua, 1804. urtean argitaratu zuen; hogeita bi urte besterik ez zituela. Esoporen alegietatik hartutako berrogeita hamar alegia euskaratu zituen, eta gipuzkeraz idatzi. Hala ere, bizkaierazko zertzelada batzuk ere baditu. Ondoren, bere osabaren zortzi alegiak atxiki zituen, osabak idatzitako lanen artean aukeratuak. Ipuin horietan, animalien arteko elkarriketak abiapuntu izanda, ikasbide bat dago. Liburua gazteei eta nekazariei eskaini zien eta harrera ona izan zuen, berrargitarapen ugari izanez. Hori dela eta, XIX.mendean, alegiak Euskal Herrira iritsi ziren, haurrak eta nekazariak heitzeko tresna gisa, Bizenta Mogelen alegiak tradizio berri horretako lehenak izanez. Izan ere, Morgeldarren ondoren, alegi itzultzaile ugari agertu ziren, aurreko mendeko alegiak itzuliz, esate baterako, Agustin Paskual Iturriaga, XIX. mendeko alegilari handienetako bat.

Bizentaren lanen artean, badira beste lan batzuk ere (*Gabonetaco cantia Bizkaitar guztientzat* (1819) izeneko kantua, *España-ko Gotzai-buruaren Artzai idazkia* (1820) euskaratu zuen eta Ulibarri arabarraren testuak orrazten lagundu zuen), baina ezagunena *Ipuin Onak* dugu.

Urteen poderioz, Bizenta Eleuterio Basozabalekin ezkondu zen eta alarguna izanda, 1854. urtean Abandon (Bizkaia) hil zen.



7. irudia. *Ipui Onak* liburuaren portada.

### Lehoia eta sagua

Lehoia lotan zegoela mendi baten erriberan, hurbildu zitzaion sagu asko, eta haien arteko hausnartuenak igo zion bizkarrera. Ezagutu zuenean saguak, nor zen, eta nolako arriskuan zegoen, eskatu zion barkamena, eta ez zitzaiola arren kalterik egin; ez ziola bizkarrera igo gaizki nahita. Bazekien lehoiak, ez zuela ezer aterako pizti halako bat gaitz eginaz; gaizki izango zela bazter guztietan bere atzapar bortitzak eramaten bazituen sagu bat apurtzeko. Laga zion bada joaten nahi zuen lekura. Saguak dio:

- Lehoi prestua, esker handiak ematen dizkizut gaitz gabe bidaltzen nauzulako, eta hemen, eta non nahi, egongo naiz zuri on egiteko ezertan ahal badut.

Egun batzuen ondoren erori zen lehoia prestatu zioten lakirio batean. Ikusi zuenean bere burua gatibu, eta urratu ezin zituela loturik zeuzkaten sokatxarrak, hasi zen orroa izugarriak ateratzen. Entzun zituen orroa handiak aipatu dugun sagutxoak; ezagutu zuen norenak ziren, eta estutasun gogorren batean zegoela, berari on egin zion lehoia. Gerturatu zitzaion ikusteko zer zen; ikusten du gatibu; eta dio:

- Nire ongile prestua, ez larritu; ni naiz asko zu ateratzeko arrisku horretatik. Ez daukat ahaztuta zer zor dizudan, nolako hitza eman nizun.

Sagutxoak igo zuen soka edo gatibu zeukaten lokarri sendoetara. Gutxika gutxika urratu zituen hortzekin. Irten zuen lehoia kalte gabe, eta esaten dio:

- Zorioneko ordua, zeinean entzun nituen zure eskariak, eta utzi nizun joaten gaitzik egin gabe. Zein prestu eta hitz onekoa zaren txikia izanda ere!

Ipuin honek esan nahi du txikitxoek beharra izatera etorri daitezkeela, gizonik handienak, eta gaitzik egin ezin dezaketek askok on egin dezaketela. Irakasten ere du, eskertsu izaten, eta ez ahazten hartu diren mesedeak.

Dionak "ez dut inoren beharrik"  
burua dauka galdurik.

## AGUSTIN PASKUAL ITURRIAGA: “Ipuinak” (1842)



8. irudia: Agustín Paskual Iturriaga.

Agustín Paskual Iturriagak (1778-1851, Hernani, Gipuzkoa) Andoaingo seminarioan hasi zituen ikasketak eta, ondoren, Oñatiko Unibertsitatean Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen. Hogeitasei urte zituelarik, apaiztu zen eta bere jaioterrian irakas-lanetan ihardun zuen. Apaiztu baino lehen, 1817tik 1823ra bitarteko epealdian, irakaskuntzan aritu zen bereziki. Hernanin bertan, gazteak hezi nahirik -aurreko urteetan haurrei ematen zizkien latineko eta gramatikako eskola solteek abiapuntu izanda-, eta herriko lagun batzuen eskaera aintzat hartuz, Gipuzkoako Aldundiari eskola bat irekitzeko baimena eskatu zion. Baimenarekin, eskola sortu eta sei urtez iraun zuen berak zuzendutako eskola horrek. Ikastetxean latineko, frantseseko eta gaztelaniako gramatika eskolak irakasten zituen eta apaiz zen aldetik, kristau-doktrina. Konstituzio erregimenaren aldekoa omen zenez, eskolak ez zuen irakaskuntzan jarraitzeko baimen gehiagorik lortu.

Agustín Iturriaga, irakaslea izateaz gain, euskal pedagogian aitzindari eta gidari modura hartua izan da, bere garaian berrikuntza ekarri zuelako, eskolan zigorrak ez zutela lekua aitortuz. Aldundiari idatzitako baimen-eskaera gutunean, beraz, ikasleekin erabiltzen diren sistema antipedagogikoak salatu zituen; erdaraz ikastea, eta euskara galarazi eta gorrotaraztea, alegia.

Gazteak filosofia okerrean hezi omen zituelako salaketak jaso zituen eta, badirudi, irakaskuntzarako kentzeko baimena ez ezik, Hernanitik erbesteratu zutela. Garai hartan, Euskal Herria zatikatuta zegoen, bi partidu politiko nagusiak (liberak eta karlistak) borrokan zebiltzan eta. Lehen guda karlistak (1833-1839) iraun zuen urteetan eta zazpi urte gehiagoz, Hegoaldeko bi herritan ezkutaturik egon zen. Ondoren, Iparraldera erbesteratu zuen, 1841ean Hernanira itzuli zen arte.

Iturriagak asmo pedagogiko horiek irakurgaietara eraman zituen, hiru liburu argitara emanaz. Bere lehen liburua, 1841. urtean argitara eman zuen, *Arte de aprender a hablar la lengua Castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* izenarekin. Bertan, menperatzen den euskaratik ikasleei abiatu behar zaiela erdarara azaltzen du, besteak beste. Bigarrena, aldiz, *Diálogos Basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* da, aurrekoaren osagarri gisa atera zuena. Liburu hau *Jolasak* izenez ezagutua izan da euskaraz eta bertan Basilio irakaslearen eta Antonio ikaslearen elkarrizketez osatutako liburutxo da. Hirugarren liburua 1842. urtean kaleratu izan zen, euskaraz *Ipuiak* izenarekin ezagutua. Lehenengo bi liburuek, bereziki irakaskuntzarako liburuak izan ziren, eta eman ez zioten ospea eman zion egileari hirugarren liburu honek. Bertsoz osatutako fabula edo alegietan animaliak agertzen dira, eta hauen amaieran ondorioztatzen den irakaspena du xede. Hauek nagusiki, Samaniegoren alegietatik itzuliak dira.

Azken hamar urteetan, bere herrian apaiz zereginetan aritu zen, baita aipatu ditugun bere hiru liburuak argitaratzen eta euskaldunen batasunaren beharra aldarrikatzen ere. 1851. urtean Hernanin bertan hil zen, 73 urte zituela.

### **Adiskide bi eta hartza**

Adiskide handi bi  
 doaz bidean,  
 elkarrekin hizketan  
 umore onean;  
 hartz handi bat zaie  
 basotik irtetzen,  
 ikaratuta zuhaitzera  
 bata da igotzen;  
 bestea gelditzen da  
 gaixoa bakarrik,  
 hartz handiari ezin  
 aurpegia emanik.  
 Zer egin honelako  
 estutasunean?  
 Hilda balitz bezala,  
 jartzen da lurrean.  
 Nola hartzak ez duen  
 gorputz hilik jaten,  
 usaindu egin ondoren  
 da aurrera joaten.  
 Berehala jaisten  
 da zuhaitzekoa,  
 eta lagunarengana  
 lasterka han dihoa.  
 “Adiskidea -dio-,  
 asko dut nik atsegin  
 zu hemen aurkitzea  
 osasunarekin;  
 zer ikarak ditudan  
 zugatik eraman,  
 beldurrez zu noiz hartzak  
 behar zintuen jan!  
 Isilik belarrira  
 dizu hark hitz egin,  
 zer esan ote dizun  
 nahi nuke nik jakin”.  
 “Hara zer esan didan  
 hartzak belarrira:  
 Munduan adiskide  
 mota asko dira;  
 ez duzu hartu behar,  
 jakin ezazu gaurtik,  
 zure adiskidetzat  
 gizon beldurturik”.